#### Aurrez aurreko kanala

Itxaronaldien eta hitzorduen kudeaketa. Itxaronaldien kudeaketa-sistema ezarri da 34 bulegotan, prestakuntza-saioak eta txostenak idazteko saioak egin dira, eta hitzorduen kudeaketa diseinatzeko baldintzak zehaztu dira.

#### Telefono bidezko kanala

Lanbitel. Call Center. Telefono bidezko plataforma berri bat abiarazi zen apirilean, eta herritarrei erantzuteko zenbaki berriak argitaratu ziren, erabiltzaileek gutxiago ordaindu behar

### *Información y Atención al cliente*

#### *Canal Presencial*

*Gestión del gestor de espera y citas. Se ha implantado el sistema de gestor de espera en 34 oficinas, realizándose sesiones de formación e elaboración de informes y se han definido los requerimientos específicos para el diseño del gestor de citas.*

#### *Canal Telefónico*

*LanbiTEL. Call Center. Se puso en marcha una nueva plataforma telefónica en el mes de abril, se publicaron nuevos números de atención a la ciudadanía para reducir el coste para el*

izateko. Ugaritu egin dira enplegu-eskatzaileen eta enpresen kontsultak: 740.209 dei jaso ziren, eta hautagaiak enplegu-eskaintzetarako prest zeuden jakiteko 165.742 dei egin ziren. Telefono bidezko 905.951 kontsulta kudeatu dira. LANBIDEren postontzi elektronikoa ezin izan da Lanbitelen integratu, LANBIDEren weba euskadi.net-en dagoelako integratuta.

*usuario/a. Se ha incrementado el número de consultas en servicios a demandantes de empleo y empresas alcanzando las 740.209 llamadas entrantes, asimismo se han realizado 165.742 llamadas salientes de comprobación de disponibilidad a candidatos/as a ofertas de empleo. Gestionando un total de 905.951 consultas telefónicas. No ha sido posible la integración del buzón electrónico de Lanbide en LanbiTEL motivado por la integración de la web de Lanbide en Euskadi.net.*

**Web kanala. www.lanbide.net.**

Urrian jarri zen martxan euskadi.net-en integratutako web berria, diseinua, funtzionamendua, edukiak, zerbitzuak eta abar berrituta. Responsibe bertsio bat erabili da, komunikazio-sistema guztietara egokitu ahal izateko.

***Canal Web. www.lanbide.net***

*En octubre se puso en marcha la nueva web integrada en euskadi.net con un nuevo diseño y funcionamiento, contenidos, servicios etc….se ha realizado en una versión Responsive que permite la adaptación a los distintos sistemas de comunicación.*

**Kexak eta iradokizunak**

630 kexa jaso dira eta gutxitu egin da itxaron beharreko denbora. Haiek elektronikoki tramitatu ahal izateko lanak egin dira.

***Quejas y sugerencias***

*El total de quejas recibidas ha sido de 630 reduciéndose el tiempo de respuesta. Se han realizado los desarrollos para su tramitación electrónica.*

**Arreta multikanal berriaren diseinua**

Arreta multikanalerako CRM sistema bat diseinatzen ere aritu gara.

***Diseño del nuevo modelo de atención multicanal***

*Se ha participado en el diseño de un sistema de CRM para atención multicanal.*

**Atari Korporatiboa/Intraneta**

Inkestak, ideia-lehiaketak eta prentsa-dossierrak kudeatzeko, sortzeko eta egiteko guneak garatu dira. Baita eduki berriak sortzeko eta datuak eguneratu eta mantentzeko guneak ere. Handitu egin da erabilera, eta indarra hartu du barruko lan-tresna gisa.

***Portal Corporativo/Intranet***

*Se desarrollaron los espacios de contenidos de gestión, creación y realización de encuestas, concurso de ideas, dosieres de prensa, generación de nuevos contenidos, actualización y mantenimiento de datos. Se ha incrementado su uso consolidándose como herramienta interna de trabajo.*

| PROGRAMA | *PROGRAMA* |
|---|---|
| 3121 GIZARTERATZEA | *3121 INCLUSIÓN SOCIAL* |
| **ARDURADUNA** | ***RESPONSABLE*** |
| 41 LANBIDE, EUSKAL ENPLEGU ZERBITZUA | *41 LANBIDE, SERVICIO VASCO DE EMPLEO* |
| LANBIDEKO ZUZENDARI NAGUSIA | *DIRECTOR GENERAL DE LANBIDE* |

## HELBURUA

DBE eta EGPO prestazioak azkartasunez izapidetu eta ebaztea, eta baliabideak eraginkorki erabiltzea.

1. Arreta eta informazioa emateko sistema erraz eta gorabeherarik gabe bat garatzea.

2. Jasotako eskariak araudian aurreikusitako epe eta eskakizunen arabera izapidetzea.

3. Lan-arloko aktibazio-politiketara jotzeko bidea erraztea prestazioen onuradunei, prestazioak jasotzea ez mobilizatzeko faktore bilaka dadin saihestuz.

4. Eskakizunei eusten zaiela kontrolatzea eta aldaketak azkar hautematen direla ziurtatzea, barne- eta kanpokontrolerako prozesuak garatuz.

## *OBJETIVO*

*Tramitar y resolver las prestaciones de RGI/ PCV con agilidad, y un uso eficiente de los recursos.*

*1. Desarrollar un sistema de atención e información accesible y sin incidencias.*

*2. Tramitar las solicitudes recibidas con sujeción a los plazos y requisitos previstos en la normativa.*

*3. Facilitar el acceso a las políticas de activación laboral a los beneficiarios de las prestaciones, evitando que la percepción de las mismas se convierta en un factor de desmovilización.*

*4. Asegurar el control del mantenimiento de requisitos y la rápida detección de modificaciones desarrollando los procesos de control interno y externo.*

## BETETZE MAILA

### DIRU SARRERAK BERMATZEKO POLITIKA GAUZATZEA

1. Arreta eta informazioa emateko sistema erraz eta gorabeherarik gabe bat garatzea.

- Urtean zehar, 290.507 gai jaso dira, DBE eta EGPO prestazioak izapidetzeko.
- 131.616 hitzordu eman ziren, DBE eta EGPO prestazioei buruzko informazioa emateko.

2. Jasotako eskariak araudian aurreikusitako epe eta eskakizunen arabera izapidetzea.

- 64.931 bizikidetza-unitatek jaso dituzte prestazioak urtean, batez beste.
- 2014an zehar, 388,12 milioi euro eman dira DBE prestazioetarako.
- 2014an, 87,28 milioi euro man dira EGPO prestazioetarako.
- 119.409 ebazpen eman dira DBE/EGPO prozeduretan.
- 22.304 ebazpen eman dira, eskaera berriei dagokienez.
- 97.105 ebazpen eman dira, aurrez aztertutako espedienteak berrikusteko edo berriz hasteko.
- Eskaera egiteko, berriz hasteko edo zenbatekoa handitzeko prozeduretan, ebazpenen %83 aldekoak izan dira, eta eskaera egin eta bi hilabeteko epe

## *GRADO DE CUMPLIMIENTO*

### *EJECUTAR LA POLÍTICA DE GARANTÍA DE INGRESOS*

*1. Desarrollar un sistema de atención e información accesible y sin incidencias.*

- *290.507 Asuntos recibidos durante el año para la tramitación de prestaciones RGI/PCV.*
- *131.616 Citas para atención e información RGI/PCV.*

*2. Tramitar las solicitudes recibidas con sujeción a los plazos y requisitos previstos en la normativa.*

- *64.931 Unidades de convivencia beneficiarias de prestaciones en promedio anual.*
- *388,12 Millones de euros pagados en prestación RGI durante 2014.*
- *87,28 Millones de euros pagados en prestación PCV durante 2014.*
- *119.409 Resoluciones en procedimientos RGI / PCV.*
- *22.304 Resoluciones en nuevas solicitudes.*
- *97.105 Resoluciones de revisión o reanudación en expedientes previamente reconocidos.*
- *83% De las resoluciones favorables en procedimientos de solicitud, reanudación o aumento de cuantía, resueltas e incorporadas a la nómina en*

legalean ebatzi eta nominan sartu dira.

3. Lan-arloko aktibazio-politiketara jotzeko bidea erraztea prestazioen onuradunei, prestazioak jasotzea ez mobilizatzeko faktore bilaka dadin saihestuz.

- 213.310 laneratze-zerbitzu eman zaizkie prestazioen titularrak edo onuradunak diren pertsonei.
- Orientazio-zerbitzuetan parte-hartzaileen %30 eta prestakuntza-zerbitzuetan %18 DBE prestazioen eskatzaileak ziren.

4. Eskakizunei eusten zaiela kontrolatzea eta aldaketak azkar hautematen direla ziurtatzea, barne- eta kanpokontrolerako prozesuak garatuz.

- 13 elkarreragingarritasun-zerbitzu eman ziren, izapideak egiteko edo betekizunak kontrolatzeko.
- Bidegabeko kobrantza eragiten duten ebazpenak %10 gutxitu ziren, ebazpen guztiekiko.
- Bidegabeko kobrantzen batez besteko zenbatekoa %22 txikitu zen.
- 10.639 ebazpen eman dira ofizioz hasitako berrikuste prozeduretan.

*el plazo legal de dos meses desde la fecha de solicitud.*

*3. Facilitar el acceso a las políticas de activación laboral a los beneficiarios de las prestaciones, evitando que la percepción de las mismas se convierta en un factor de desmovilización.*

- *213.310 Servicios de inserción laboral prestados a personas titulares o beneficiarias de las prestaciones.*
- *El 30% de los participantes en servicios de orientación y el 18% en los de formación eran demandantes perceptores de RGI.*

*4. Asegurar el control del mantenimiento de requisitos y la rápida detección de modificaciones desarrollando los procesos de control interno y externo.*

- *13 Servicios de interoperabilidad para la tramitación o el control de requisitos.*
- *Reducción del 10% en el porcentaje de resoluciones que generan un cobro indebido con respecto al total de resoluciones.*
- *Reducción del 22% en el importe medio de los cobros indebidos detectados por cada resolución.*
- *10.639 Resoluciones en procedimientos de revisión iniciados de oficio.*

Lanbide-Euskal Enplegu Zerbitzua
*Lanbide-Servicio Vasco de Empleo*

| PROGRAMA | *PROGRAMA* |
|---|---|
| 3211 ENPLEGUA | *3211 EMPLEO* |
| **ARDURADUNA** | ***RESPONSABLE*** |
| 41 LANBIDE, EUSKAL ENPLEGU ZERBITZUA | *41 LANBIDE, SERVICIO VASCO DE EMPLEO* |
| LANBIDEKO ZUZENDARI NAGUSIA | *DIRECTOR GENERAL DE LANBIDE* |

## HELBURUA

## ENPLEGUA SUSTATZEA

Lanean hasteko zailtasun bereziak dituzten kolektiboak

Autoenplegua eta enpresak sortzea

Lana eta familia bateragarri egitea

## TOKI ETA ESKUALDE GARAPENA

Lanean hasteko zailtasun bereziak dituzten kolektiboak.

Tokiko ekintzetarako laguntzak

## ENPRESETARAKO ZERBITZUAK

**Enpresetara bisita egitea, zerbitzuak eskaintzeko**

1. Enpresetara bisita egitea, bai zerbitzuak eskaintzeko, bai eta enpresekiko harremanak eta emandako zerbitzuak planifikatzen, kudeatzen eta haien jarraipena egiten laguntzen duen tresna bat (CRM) ezartzeko ere.

2. Akordioak egitea erakundeekin eta eragileekin, zerbitzuak egiteko eta jarduerak koordinatzeko, egoeraren azterketan oinarrituta.

**Enplegu lagundua**

1. Pertsona desgaituak eta gizartean baztertuak izateko arriskua duten pertsonak lanera daitezen sustatzea, zenbait programa kudeatuz.

**Gazteak praktikaldian kontratatzea**

1. Gazteen kontratazioa sustatzea, bai gure erkidegoan, bai atzerrian.

**Ekintzailetzaren alorreko programak sustatzea eta kudeatzea**

1. Enpresa-alorreko kultura eta ekimenak sustatzea, sentsibilizazio-ekintzak eginez.

2. Ekimen berriak sortzea, enpresa-ekimenei eusten nahiz enpresa-ekimen berriak bultzatzen lagun dezaten.

## *OBJETIVO*

## *FOMENTO DE EMPLEO*

*Colectivos con especiales dificultades de inserción*

*Autoempleo y creación de empresas*

*Conciliación de la vida familiar y laboral*

## *DESARROLLO LOCAL Y COMARCAL*

*Colectivos con especiales dificultades de inserción.*

*Ayudas de Acciones Locales*

## *SERVICIOS A LA EMPRESA*

***Visitas a empresas para la oferta de servicios***

*1. Visitas a empresas para la oferta de servicios e implantación de un herramienta de apoyo a la planificación, gestión y seguimiento de la relación con las empresas y de los servicios prestados – CRM.*

*2. Acuerdos con instituciones y agentes para la provisión de servicios y articulación de las actuaciones en prospección.*

***Empleo con Apoyo***

*1- Fomentar la integración laboral de personas con discapacidad y de personas en riesgo de exclusión social mediante la gestión de diversos programas.*

***Contratación en prácticas de jóvenes***

*1. Promocionar la contratación de jóvenes tanto en nuestra comunidad como en el extranjero.*

***Fomentar y gestionar programas en el ámbito del Emprendimiento***

*1. Potenciar la cultura e iniciativa empresarial mediante la realización de acciones de sensibilización.*

*2. Generar nuevas iniciativas que contribuyan tanto al mantenimiento como al impulso de nueva iniciativas empresariales.*

**Globalizaziora Egokitzeko Europako Funtsa (GEEF) kudeatzea eta haren jarraipena egitea**

***Gestionar y realizar el seguimiento del FEAG.***

## LANERATZEA

## *INSERCIÓN LABORAL*

Enplegurako orientabidea

KZ-Guneko zentroei agintzea kudeaketa

Bitartekotza

EURES zerbitzua

Enplegu-agentziak

Atzerriko lankidetza eta mugigarritasuna

*Orientación para el empleo*

*Encomienda de gestión a centros KZ-Gunea*

*Intermediación*

*Servicio EURES*

*Agencias de Colocación*

*Colaboración Exterior y movilidad*

## BETETZE MAILA

## *GRADO DE CUMPLIMIENTO*

## ENPLEGUA SUSTATZEA

## *FOMENTO DE EMPLEO*

**Lanean hasteko zailtasun bereziak dituzten kolektiboak**

Helburu honen barruan, bi talde nagusi daude:

**1. Desgaitasunen bat duten pertsonak**

% 33tik gorako desgaitasunen bat duten 8.074 pertsona (urteko batez besteko langileria) kontratatu dira diru-laguntza bidez 81 enplegu-zentro berezitan; hau da, 2013ko datuekin alderatuta, % 7,55 igo da diruz lagunduta kontratatu diren pertsonen kopurua.

Enplegu-zentro berezi horietako 34tan, lanbide-jarduerari laguntzeko unitateak sortzea finantzatu dugu; izan ere, 433 pertsona kontratatu dira diru-laguntza bidez, laguntza espezializatua emateko oso desgaitasun handia duten 3.756 pertsonari. Pertsona horiek lan-merkatuan sar daitezen sustatu dugu horrela.

Azkenik, % 33tik gorako desgaitasuna duten 141 langileri kontratazio mugagabea egin zaie enpresa arruntetan, diru-laguntzei esker.

**2. Gizartean baztertuak izateko arriskua duten pertsonak**

2014an, gizartean baztertuak izateko arriskua duten 491 pertsona 50 laneratze-enpresatan kontratatzen lagundu da diruz. Irabazi-asmorik gabeko erakundeek sortuak dira laneratze-enpresa horiek, eta haien helburua da zailtasunak dituzten pertsonei aukera bat ematea, gizartera daitezen. Horrez gain, integrazio horretan laguntzeko 149 teknikari kontratatu dira diru-laguntza bidez 50 enpresa horietan. Teknikari horiek, laneratzen (ekoizten laguntzeko teknikariak) nahiz gizarteratzen (gizarteratzen laguntzeko teknikariak) lagunduko diete pertsona horiei.

***Colectivos con especiales dificultades de inserción***

*Dentro este objetivo distinguimos especialmente dos colectivos:*

***1. Personas con discapacidad***

*Se ha subvencionado la contratación de 8.074 (plantilla anual media) personas con discapacidad superior al 33% en 81 Centros Especiales de Empleo, lo que ha supuesto un aumento de un 7,55 % en el número de personas subvencionadas respecto del ejercicio 2013.*

*En 34 de estos Centros Especiales de Empleo se ha financiado la constitución de Unidades de Apoyo a la Actividad Profesional, subvencionando la contratación de 433 personas, que han prestado atención especializada a 3.756 personas con una discapacidad muy elevada, buscando favorecer su integración en el mercado laboral.*

*Finalmente, se ha subvencionado la contratación con carácter indefinido de 141 trabajadores/as con discapacidad superior al 33% en empresas ordinarias.*

***2. Personas en riesgo de exclusión social***

*En 2014 se ha subvencionado la contratación de 491 personas que se encontraban en riesgo de exclusión social por parte de 50 empresas de inserción, creadas por entidades sin ánimo de lucro, y cuyo objetivo es ofrecer una oportunidad a personas en dificultades, buscando su integración en la sociedad. Asimismo se ha subvencionado la contratación en estas 50 empresas de 149 técnicos/as para el apoyo a esta integración, tanto en su aspecto profesional (personal técnico de acompañamiento a la producción) como social (personal técnico de acompañamiento a la inserción).*

**Autoenplegua eta enpresak sortzea**

Pertsona ekintzaileei laguntzeko deialdi bat egin, kudeatu eta ebatzi da, eta, deialdi horri esker, 276 pertsonak diru-laguntza bat jaso dute, beren enpresa-ideia garatzen edo hura martxan jartzen soilik lan egin ahal izateko. Horrez gain, 2014an lanean hasi diren 600 langile autonomok beren proiektua finkatzeko laguntza ekonomikoa jaso dute.

Bestalde, gizarte-segurantzaren kotizaziorako diru-laguntza eman zaie 521 pertsonari, langabeziako prestazioa ordainketa bakarreko modalitatean jaso dutelako, ordainketa horrekin jarduera bati ekiteko bazkide langile gisa elkarlaneko kooperatiba batean, lan-sozietate batean edo autonomo gisa.

Azkenik, 450 enpresa berri sortzea sustatu dugu, eratze-prozesuan laguntza eta aholkularitza emanez.

**Lana eta familia bateragarri egitea**

2014an, 1.491 espediente ebatzi dira (491 enpresari eragin diete), lana eta familia bateratzeko neurriei heldu dieten langileak ordezkatuko dituzten enplegu-eskatzaileen kontratazioa diruz laguntzeko. Langile horiek, aipatutako neurriei heldu diete, seme-alabak edo mendekotasuna duen senideren bat zaintzeko, eta lanaldia murriztu dute edo eszedentzia eskatu dute.

**TOKI ETA ESKUALDE GARAPENA**

**Lanean hasteko zailtasun bereziak dituzten kolektiboak.**

Asmoa izan da udalekin eta tokiko garapen-agentziekin lankidetzan aritzeko erakunde arteko akordioen proposamenak egitea, estrategia bateratu bat izan dezaten, tokian bertan esku hartzean, enplegagarritasuna hobetzeko, enplegua sortzeko eta garrantzia hartzen ari diren eta/edo estrategikoak diren sektoreak indartzeko.

Hori dela eta, ekonomia suspertzeko planak jarri dira martxan, langabeak laneratzeko prozesu osoen bidez. Lehentasuna eman zaie diru-sarrerak bermatzeko errenta kobratzen duten eta/edo kontratua iraungitzeko enplegu-erregulazioko espediente bat dutenei, edota laneratzeko zailtasunak dituzten kolektiboetako langabeei; hau da, langabezia-tasa handiak dituzten zonalde apaletako langabeei. Hona hemen ekonomia suspertzeko erabili diren planak: Tolosa Lanekin programa pilotua eta Oarsoaldean 9 Enplegu Plan egiteko Eskualdeko Laguntza Teknikorako Plana.

• 1. 2014an, Tolosa Lanekin programa pilotua egin da. 12 hilabete iraun du, eta 2014ko lehenengo hiruhilekoan amaitu da. Programa horretan, lan pertsonalizatua egin da diru-sarrerak bermatzeko errenta jasotzen duten 40 pertsonarekin: 19 emakumerekin eta 21 gizonekin, zehazki. Zeharkako

***Autoempleo y creación de empresas***

*Se ha desarrollado, gestionado y resuelto una convocatoria que, buscando apoyar a personas emprendedoras, ha permitido que un total de 276 personas obtengan una subvención que les permita dedicarse en exclusiva, bien al desarrollo de su idea empresarial, bien a su puesta en marcha. Además, 600 trabajadores/as autónomos/as que han iniciado su actividad en 2014 han recibido apoyo económico para la consolidación de su proyecto.*

*Por otro lado se ha subvencionado la cotización a la Seguridad social de 521 personas que han percibido su prestación de desempleo en la modalidad de pago único para iniciar una actividad como socios/as trabajadores de una cooperativa de trabajo asociado, sociedad laboral o autónomos.*

*Finalmente, se ha favorecido la creación de 450 nuevas empresas mediante el acompañamiento y asesoramiento en su proceso de constitución.*

***Conciliación de la vida familiar y laboral***

*Durante el ejercicio 2014, se han resuelto 1.491 expedientes, afectando a 491 empresas, que subvencionan la contratación de personas demandantes de empleo, para la sustitución de trabajadores/as acogidos/as a medidas de conciliación, por reducción de jornada o excedencia, para cuidado de hijo/a o familiar dependiente.*

***DESARROLLO LOCAL Y COMARCAL***

***Colectivos con especiales dificultades de inserción.***

*Elaboración de propuestas de acuerdos interinstitucionales de cooperación con Ayuntamientos y Agencias de Desarrollo Local que desarrollen la estrategia conjunta de intervención local para la mejora de la empleabilidad, la generación de empleo y el impulso de sectores emergentes y estratégicos.*

*Por este motivo, se han puesto en marcha Planes de Reactivación, mediante procesos integrales de inserción laboral con personas desempleadas, prioritariamente pertenecientes a los colectivos de Renta Garantía de Ingresos y/o Expedientes de Regulación de Empleo de extinción y colectivos de difícil inserción laboral, en zonas deprimidas con altas tasas de paro. Estos Planes de Activación han sido: Programa Piloto Tolosa Lanekin y Plan para la Asistencia Técnica Comarcal de 9 Planes de Empleo correspondiente a la Comarca de Oarsoaldea.*

*• 1. En el año 2014, el Programa Piloto Tolosa Lanekin, con una duración de doce meses, finalizado en el primer trimestre del 2014, se centró en el trabajo personalizado con 40 perceptores/as de RGI de las cuales 19 eran mujeres y 21 hombres. .La actuación consistía en desarrollar competencias transversales y*

gaitasunak eta gaitasun profesionalak garatu nahi izan dira, banakako eta taldeko saioen bidez, bai eta Tolosaldeko enpresetan lan-esperientziak izanez ere.

Azken helburua zen proiektuan parte hartzen zuten 10 pertsonak gutxienez lan egonkorra lortzea lan-merkatuan.

• 2. 2014an, 9 Enplegu Plan egiteko Eskualdeko Laguntza Teknikorako Planeko jarduerak hasi dira Oarsoaldean; hau da, Pasaia, Oiartzun, Errenteria eta Lezo udalerrietan. Programa horren helburua izan da laneratzeko prozesu integralak gauzatzea eskualdean, laneratzeko zailtasun handiak dituzten langabeekin eta langabezia-tasa handiko inguruneetan. Programak eskualdeko 150 langaberekin egin du lan, eta gutxienez ere parte-hartzaileen % 35 laneratzea izan du helburu. Programak hamabi hilabete irauten du, eta 2014ko maiatzean hasi da.

Orain arte, 31 pertsona laneratzea lortu da.

**Tokiko ekintzetarako laguntzak**

2013ko urriaren 18an, 2013ko urriaren 17ko Ebazpena argitaratu zen, tokian tokiko enplegua sustatzen zuten ekintzei diru-laguntzak emateko (EHAA, 2013-10-18).

Aurrekontua zela-eta, deialdi hori 2014ko apirilean hasi da.

Deialdi horren helburua da Lanbide-Euskal Enplegu Zerbitzuan erregistratutako pertsona langabeen enplegagarritasuna hobetzea. Horretarako, laguntzak emango zaizkie tokiko erakundeei, enplegua sortzeko proiektuak martxan ipintze aldera. Proiektu horiek lurraldearen garapen sozioekonomikoan eta modernizazioan izan behar dute eragina, eta bat etorri behar dute Eusko Jaurlaritzaren 2013-2016ko Enplegu Planean tokian tokirako ezarritako lan-jardunekin.

Udaletako, mankomunitateetako, eskualde-elkarteetako eta kuadrilletako 49 espediente aurkeztu dira deialdira, eta 49ei diru-laguntza ematea ebatzi da. Beraz, EAEko lurralde osora zabaldu da eragina.

Lau jardun-ildotan zatituta dago deialdia: 1) tokiko erakundeek enplegua sustatzea; 2) tokiko ekintzailetzari laguntzea; 3) tokiko enpresetan kontratazioak egiten laguntzea; eta 4) enplegua sortzeko balio duten beste garapen-jarduera batzuk sustatzea tokian bertan.

Ebazpen-prozesuan onartu diren eskaeren bidez, 2.071 kontratazio, 1.129 ekintzailetza-jarduera eta tokiko garapenerako beste 224 jarduera lagundu dira diruz.

*profesionales, sesiones individuales y grupales, así como, experiencias laborales en empresas de la Comarca de Tolosaldea.*

*El Objetivo final se fijó en la inserción laboral estable en el mercado de trabajo de al menos 10 personas participantes en el proyecto.*

*• 2. Durante el año 2014 se iniciaron las actuaciones del Plan para la Asistencia Técnica Comarcal de 9 Planes de Empleo correspondiente a la Comarca de Oarsoaldea , que corresponde a los municipios de Pasajes, Oiartzun, Renteria y Lezo. El objetivo de este Programa es el desarrollo de procesos integrales de inserción laboral en la Comarca con personas desempleadas con especiales dificultades de inserción y con altas tasas de paro. El programa trabaja con un colectivo de 150 personas desempleadas de la comarca siendo el objetivo de inserción laboral de al menos el 35% de las personas participantes. La duración del programa es de doce meses, con inicio en mayo de 2014.*

*Se ha conseguido, hasta el momento, una inserción laboral de 31 personas.*

***Ayudas de Acciones Locales***

*Con fecha 18 de octubre de 2013 se publicó la Resolución de 17 de octubre de 2013, la Convocatoria de Ayudas para acciones Locales de promoción de empleo (BOPV 18-10-13).*

*Por motivos presupuestarios esta convocatoria se inició en abril del 2014.*

*El objetivo de esta Convocatoria es la mejora de la empleabilidad de las personas desempleadas inscritas en Lanbide-Servicio Vasco de Empleo, mediante la concesión de ayudas a las Entidades Locales con el propósito de poner en marcha proyectos dirigidos a la creación de empleo que repercutan en el desarrollo socio-económico y modernización del territorio objeto de actuación, y que sean coherentes con las actuaciones locales por el empleo establecidas en el Plan de Empleo del Gobierno Vasco 2013-2016.*

*A la Convocatoria se presentaron y se resolvieron de manera favorable 49 expedientes correspondientes a Ayuntamientos, Mancomunidades, Agrupaciones Comarcales y Cuadrillas, cubriendo todo el ámbito territorial de la Comunidad Autónoma.*

*Esta Convocatoria se distribuye en cuatro líneas de actuación: Fomento del Empleo por parte del Entidades Locales, Apoyo al Emprendimiento Local, Ayuda a la Contratación en las empresas del ámbito local y otras actuaciones de desarrollo local con incidencia en la creación de empleo.*

*En el proceso de resolución se han estimado solicitudes que conllevan la subvención por la contratación de 2.071 puestos de trabajo, 1.129 actuaciones de Emprendimiento y 224 de otras actuaciones de Desarrollo Local.*

**Lehen Aukera programa**

2014. urtean, Lanbide-Euskal Enplegu Zerbitzuak lehen aldiz bultzatu du Lehen Aukera deialdia, Lanbide-Euskal Enplegu Zerbitzuko Administrazio Kontseiluak 2014ko uztailaren 30eko bilkuran hartutako Ebazpenaren bidez. 2014ko abuztuaren 11ko (astelehena) EHAAn argitaratu zen ebazpena.

Deialdian, 2014an eman beharreko diru-laguntza horiek arautzeko oinarriak ezarri dira. Beren tituluarekin lotutako lanetan esperientzia gutxi duten edo batere esperientziarik ez duten 30 urtetik beherako gazte langabeak EAEko enpresetan praktikaldian kontratatzeko izan dira, zehazki, diru-laguntzak. Deialdiaren helburua izan da gazte horien enplegagarritasuna hobetzea, lanbide-esperientzia emanez, eta haien laneratzea finkatuz.

Deialdi hori gauzatze-fasean dago une honetan, eta, oraingoz, praktikaldiko 499 kontratazio aurreikusi dira, gutxienez sei hilabetekoak.

***Programa Lehen Aukera***

*En el año 2014, Lanbide-Servicio Vasco de Empleo promueve por primera vez la convocatoria Lehen Aukera mediante Acuerdo del Consejo de Administración de Lanbide-Servicio Vasco de Empleo, adoptado en su sesión de 30 de julio de 2014, publicado en el BOPV del lunes 11 de agosto de 2014.*

*En la convocatoria se establecían las bases reguladoras de las ayudas a conceder en el ejercicio 2014, destinadas a la contratación en prácticas de personas jóvenes menores de 30 años, en situación de desempleo y sin previa o con escasa experiencia laboral en empleos relacionados con su titulación, por las empresas vascas, como medida para favorecer la mejora de su empleabilidad, a través de la adquisición de experiencia profesional, y de consolidar su inserción laboral.*

*Esta convocatoria está en ejecución con un resultado, por el momento, de 499 contrataciones en prácticas previstas de al menos seis meses*

## ENPRESETARAKO ZERBITZUAK

**Enpresetara bisita egitea, zerbitzuak eskaintzeko**

1. CRM diseinatzea, martxan jartzea eta egiaztapen-probak egitea (CRM enpresekin harremana izateko euskarri bat da, eta Lanbidek enpresekin duen harremana eta sortzen den informazioa sistematizatzeko aukera ematen du).

2. Prestakuntza ematea zerbitzu zentraletan plan pilotu baten garapena planifikatzeaz, kudeatzeaz eta hari laguntza teknikoa emateaz arduratuko diren erabiltzaileei, enpresei eskaintzen zaizkien zerbitzuak eta jarduerak koordinatzeko, egoeraren azterketan oinarrituta.

2014an ez da martxan jarri enpresetara bisitak egiteko plan pilotua, eta ez da akordiorik egin erakundeekin eta eragileekin, ematen diren zerbitzuak eta jarduerak koordinatzeko, egoeraren azterketan oinarrituta.

**Enplegu lagundua**

1. Diru-laguntzen deialdi bat, 2014an, enplegu lagundurako jardunak garatzeko, desgaitasunen bat duten pertsonei ohiko lan-merkatuan sartzen laguntzeko neurri gisa (EHAA, 95. zk., 2014ko maiatzaren 22koa).

- Lagundutako enplegu-taldeen kopurua: 7.
- Desgaitasunen bat duten zenbat pertsona kontratatuko diren, aurreikuspenen arabera: 45.
- Desgaitasunen bat duten zenbat pertsona dauden jarraipen-prozesuetan: 129.
- Bisitatutako enpresen kopurua: 1.704.

## *SERVICIOS A LA EMPRESA*

***Visitas a empresas para la oferta de servicios***

*1. Diseño, desarrollo funcional y pruebas de contraste del CRM: herramienta soporte del modelo de relación con las empresas que permite la sistematización de la información y relación de Lanbide con las empresas.*

*2. Formación de las personas usuarias de Servicios Centrales que realizarán la planificación, gestión y apoyo técnico en el desarrollo de un plan piloto, articulando la oferta de servicios a las empresas y las actuaciones en prospección.*

*El plan piloto de visitas a empresas y los acuerdos con instituciones y agentes para la provisión de servicios y articulación de las actuaciones en prospección no han sido implementados en 2014.*

***Empleo con Apoyo***

*1. Convocatoria de Ayudas destinadas al desarrollo de las actuaciones de Empleo con Apoyo 2014, como medida de integración de personas con discapacidad en el mercado ordinario de trabajo. (BOPV N. 95, de 22 de mayo de 2014).*

- *N. Equipos de empleo con apoyo: 7.*
- *N. Personas con discapacidad previstas contratar: 45.*
- *N. Personas con discapacidad en procesos de seguimiento: 129.*
- *N. Empresas visitadas: 1704.*

**Gazteak praktikaldian kontratatzea**

1. Diru-laguntzen deialdi bat, EAEko enpresek kanpoan dituzten lantokietan gazte langabeak praktikaldian kontratatzeko. (EHAA, 136. zk., 2014ko uztailaren 18koa).

- Eskaera egin duten enpresen kopurua: 44.
- Zenbat lanpostutarako eskatu diren kontratazioak: 86.
- Diru-laguntza jaso duten enpresen kopurua: 37.
- Praktikaldiko zenbat kontratu egin zaizkien gazteei: 58.

Gazteak praktikaldian kontratatzeko diru-laguntzei uko egiteko arrazoi nagusiak izan dira enpresa bakarraren definizioa aplikatu dela edota diru-laguntzetarako ezarritako mugak aplikatu direla: muga horiek de minimis araudian daude ezarrita (EBAO, 2013-12-24).

***Contratación en prácticas de jóvenes***

*1. Convocatoria ayudas destinadas la contratación en prácticas de personas jóvenes desempleadas en centros de trabajo de empresas vascas situados en el exterior. (BOPV N. 136, de 18 de julio de 2014).*

- *N. de empresas solicitantes: 44.*
- *N. de puestos para contratación solicitados: 86.*
- *N. de empresas concedidas: 37.*
- *N. de contratos en prácticas jóvenes concedidos: 58.*

*En la mayoría de los casos, la denegación de ayudas para contratación de jóvenes en prácticas deriva de la aplicación de la definición de única empresa y de los límites establecidos para las ayudas, regulados en la normativa de mínimis (DOUE de 24.12.2013).*

**Ekintzailetzaren alorreko programak sustatzea eta kudeatzea**

1. Diru-laguntzen deialdi bat, ekintzailetza-proiektu berriak finantzatzeko, ekonomia-jardueraren eta enpleguaren sorrera bultzatzeko neurri gisa (EHAA, 191. zk., 2014ko urriaren 8koa).

- Hitzarmena sinatu duten finantza-erakundeen kopurua: 4.
- Sustatzaileek aurkeztu dituzten eskaeren kopurua: 18.
- Onartutako eskaeren kopurua: 7.

***Fomentar y gestionar programas en el ámbito del Emprendimiento***

*1. Convocatoria de ayudas dirigidas a la financiación de nuevos proyectos de emprendizaje, como medida para impulsar la generación de actividad económica y de empleo (BOPV N. 191, de 8 de octubre de 2014).*

- *N. entidades financieras firmantes del convenio: 4.*
- *N. de solicitudes de personas promotoras presentadas: 18.*
- *N. de solicitudes concedidas: 7.*

**Globalizaziora Egokitzeko Europako Funtsa (GEEF) kudeatzea eta haren jarraipena egitea**

EAEko metalaren sektorerako GEEF Plana koordinatzea, haren jarraipena egitea, eta plana ebaluatu, justifikatu eta egiaztatzea ( Plan hori Globalizaziora Egokitzeko Europako Funtsarekin batera finantzatu da, eta metalaren sektorearen barruko produktu metalikoen fabrikazioaren azpisektorean kaleratuak izan diren pertsonei laguntzea du helburu).

- GEEF Planaren bidez laguntza jaso duten pertsonen kopurua: 390.

***Gestionar y realizar el seguimiento del FEAG.***

*Coordinación, seguimiento, evaluación, justificación y certificación del Plan FEAG Metal CAPV, cofinanciado por el Fondo Europeo de Adaptación a la Globalización, destinado a personas despedidas en el Sector Metal, Subsector de Fabricación de Productos Metálicos.*

- *N. de personas atendidas en el plan FEAG: 390.*

**35 urtetik gorakoen kontratazioa**

1. Diru-laguntzen deialdi bat, EAEko enpresek kanpoan dituzten lantokietan 35 urtetik gorako langabeak praktikaldian kontratatzeko (EHAA, 187. zk., 2014ko urriaren 2koa).

Deialdi hau helburu gisa gehitu da 2014an, 35 urtetik gorako pertsonen kontratazioak sustatzeko. Hasiera batean gazteak kontratatzeko finkatu zen aurrekontuko baliabide ekonomikoen zati bat 35 urtetik gorakoen kontratazioa bultzatzeko erabili da azkenean.

- Eskaera egin duten enpresen kopurua: 29.

***Contratación de personas mayores de 35 años***

*1. Convocatoria ayudas destinadas a la contratación de personas mayores de 35 años en centros de trabajo de empresas vascas situados en el exterior (BOPV N. 187, de 2 de octubre de 2014).*

*Esta convocatoria se incorporó como objetivo en el año 2014, con objeto de apoyar la contratación de personas mayores de 35 años. A la misma se destinó una parte de los recursos económicos previstos inicialmente en el presupuesto para la contratación de jóvenes,.*

- *N. de empresas solicitantes: 29.*

- Zenbat lanpostutarako eskatu diren kontratazioak: 42.
- Diru-laguntza jaso duten enpresen kopurua: 26.
- 35 urtetik gorako zenbat pertsonari egin zaien kontratua: 36.

Kontratatzeko diru-laguntzei uko egiteko arrazoi nagusiak izan dira enpresa bakarraren definizioa aplikatu dela edota diru-laguntzetarako ezarritako mugak aplikatu direla: muga horiek de minimis araudian daude ezarrita (EBAO, 2013-12-24).

- *N. de puestos para contratación solicitados: 42.*
- *N. de empresas concedidas: 26.*
- *N. de contratos de personas mayores de 35 años concedidos: 36.*

*En la mayoría de los casos, la denegación de ayudas para contratación deriva de la aplicación de la definición de única empresa y de los límites establecidos para las ayudas, regulados en la normativa de mínimis (DOUE de 24.12.2013).*

## LANERATZEA

### Enplegurako orientabidea

1. Informazio, laguntza, motibazio eta aholkularitzako ekintzak eta neurriak hobetzea, pertsona bakoitzari aukera emanez, bere inguruabar profesionalak kontuan hartuta, bere gaitasunak eta interesak zehazteko, eta bere ibilbidea ikaskuntzarantz, enplegu-bilaketarantz edo enpresa-ekimenak praktikan jartzera bideratuta kudeatzeko.

Enplegu-zentroen zerbitzua indartzeko, zentro horietan emateko moduko taldeko jarduera batzuk diseinatu dira aurten. Jarduerek 3 orduko iraupena dute, eta hiruhileko bakoitzean 350 jarduera egiten dira.

2013an martxan jarri ziren orientatzaileen bulegoko lanaren tailer batzuk, orientazio-materiala berrikusteko, eta aurten ere martxan jarraitu dute, zerbitzua etengabe hobetuz.

2. Enplegagarritasuna baloratzea: banakako diagnostikoak egitea, erabiltzaileak enpleguaren aurrean zer posizioa duen eta zer laguntza- eta orientazio-beharrizan dituen zehazteko.

Ibilbidea egitea eta haren jarraipena egitea: plan pertsonala zehaztea eta haren jarraipena egitea erabiltzaileari, haren lankidetzarekin eta adostasunarekin.

Laneratze Arloak lehentasunezkotzat jotzen du enplegagarritasuna baloratzeko zerbitzua (76.472 balorazio egin dira 2014an); izan ere, haren bidez zehaztu daiteke beharrezkoa den ala ez den beharrezkoa ibilbide pertsonalizatu bat egitea (50.851 egin dira 2014an), lana bilatzeko prozesuan.

3. Orientazio-ekintza espezializatuak: beren laguntza-premia bereziak direla eta, laguntza espezifiko bat behar duten pertsonentzat.

Aurten, lana bilatzeko prozesuan laguntza espezifikoa duten lehentasunezko 4 talde zehazten zituen deialdi bat diseinatu da.

4. Orientazio-kudeaketaren aplikazioa perfekzionatu eta finkatzea.

Orientazio-aplikazioa etengabe hobetzen ari gara, orientazio-prozesu eta -tresnetan daudenak hobekuntza eta aldaketa berrietara egokituz.

## *INSERCIÓN LABORAL*

### *Orientación para el empleo*

